**1105**

AGINDUA, 2005eko otsailaren 16koa, Kultura sailburuarena, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautzen duena.

Kultura Sailaren artxibo alorreko politikaren helburu nagusia da epe luzean egitarauak garatzea, artxibo-sare eraginkorrak sortzeko eta artxibo-funts pribatuak indarrean dauden kontserbazio eta erabilera-arauetara egokitzeko.

Helburu hori lortzeko azken aurrekontu-ekitaldietan erabili den bideak oso emaitza onak eman ditu. Diru-laguntzak arautzen dituen agindu honetatik eratortzen diren eginkizunak, gainera, oso garrantzitsuak dira, eta aurrerantzean ere horiei eustea komeni da.

Aginduaren filosofia ezaguna da eta lankidetzan datza: lankidetza, alde batetik, Euskadiko Ondare Dokumentalaren politikaren ardura duten erakundeen aldetik, eta bestetik, publikoa ez den Euskadiko ondare dokumentalaren titularren aldetik (artxibo-funtsak, agiri-bildumak eta agiri bereziak) Filosofia hori espresuki jasotzen du Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak.

Euskal Kultura Ondarearen Legeak hainbat muga ezartzen dizkie, ordea, ondasun horien titularrei. Bistan da, horrenbestez, Administrazioak ahalegina egin behar duela muga horien trukean halako erraztasun edo ordainak emateko, gero Legeak xedatzen dituen arauak betetzeko exijituko badu. Alde bi horien arteko lankidetza eta onbideak ziurtatuko du denon gogoan dagoena benetan konplitzea, alegia: lankidetza-bide sendoak zabaltzea arian-arian ondare dokumentalaren zati hau sare eta informazio-gune publikoetan sartzea, ondasun horien titularren eskubideak inola ere urratu gabe, Legeak berak jaso eta aldezten duen bezala.

Hori lortzeko asmotan, artxibo-funtsen titularrek proposatutako egitarauetan oinarrituta lankidetza lortu nahi da. Horri lotuta, hauxe ulertuko da artxibo-egitarautzat: urtebetean zein denbora-tarte laburragoan, dokumentu edo artxiboei buruz lan jakin bat egiteko proposamena eginez, diru-laguntza eskabidea eragiten duen proiektua, alegia.

Horrenbestez, honako hau

**1105**

ORDEN de 16 de febrero de 2005, de la Consejera de Cultura, por la que se establece el régimen de concesión de subvenciones para la ejecución de programas en bienes integrantes del Patrimonio Documental no Público.

La política de Archivos del Departamento de Cultura tiene por objeto desarrollar programas a largo plazo que permitan tanto tejer redes de servicios de archivo eficaces como adecuar la situación de los fondos de archivo en manos privadas a los parámetros de conservación y uso vigentes.

Para conseguir este objetivo, la vía que se ha materializado durante los últimos ejercicios presupuestarios ha dado muy buenos resultados. El trabajo que resulta de esta Orden de Subvención es importante y ello hace muy pertinente su mantenimiento.

Su filosofía es ya conocida y se basa en la cooperación, desde un prisma de reciprocidad y de respeto mutuo a la idiosincrasia y responsabilidades de cada parte, entre los Organismos responsables de la política de Patrimonio Documental de Euskadi y los titulares de fondos de archivo, colecciones de documentos, e, incluso, documentos singulares, de carácter no público, integrantes del Patrimonio Documental de la Comunidad Autónoma. Filosofía recogida expresamente en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

El articulado de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco plantea, por otra parte, una serie de limitaciones a los titulares de estos bienes que, obviamente, requieren por parte de la Administración el correspondiente esfuerzo para arbitrar las contraprestaciones o facilidades que le van a permitir luego exigir el cumplimiento de las normas que la citada ley prevé. Del buen acuerdo y cooperación de unos y otros depende, en último término, que se convierta en realidad palpable aquello que es deseo de todos, a saber, el establecimiento de unos cauces de cooperación sólidos que haga integrarse paulatinamente a esta parte del Patrimonio Documental en las redes y sistemas de información públicos sin violentar para ello, bajo ningún pretexto y en ningún caso, los derechos de los titulares de tales bienes, que la propia Ley recoge y defiende.

Para todo ello, se pretende una colaboración sobre la base de los Programas que los titulares de tales Fondos de Archivo plantean. A tal efecto, se entenderá por Programa de Archivo al Programa anual o de duración inferior que, planteando un tratamiento concreto a los Fondos de Archivo o documentos objeto de su aplicación, motive tal solicitud de subvención.

En virtud de lo cual,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

1.– Agindu honen xedea hau da: publikoak izan gabe, Euskal Herriko Ondare Dokumentala osatzen duten artxiboetako dokumentuetan, artxibo-funtsetan zein agiri bildumetan egitarauak burutzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea, beti ere, helburua hauetakoren bat izanik:

a) Agirien kontserbazioa hobetzea.

b) Artxibo-funtsak antolatzea eta artxibo tratamendua hobetzea.

c) Informazioa zabaltzea, Badator Zerbitzua erabiliz.

2.– Aurreko puntuan ezarritakoaren ondorioetarako, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 56., 57. eta 58. artikuluetan dauden definizioak erabiliko dira artxiboetako dokumentu, artxibo-funts eta agiri bilduma kontzeptuak zehazterakoan.

*2. artikulua.–* Diru-baliabideak.

Agindu honetan ezarritako helburua betetzeko ehun eta hogeita bat mila (121.000) euroko diru kopurua erabiliko da, berariaz ezarritako aurrekontu-kredituen arabera. Muga, beraz, zenbateko hori izango da.

*3. artikulua.–* Onuradunak.

Agindu honetan ezartzen diren diru-laguntzak jaso ahal izan dituzte Euskal Herriko Ondare Dokumentala osatzen duten artxiboetako dokumentuen, artxibofuntsen zein agiri bildumen jabe izanik, publikoak ez diren pertsona fisiko eta juridikoek, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 55. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Diru-laguntzak onartzeko eta, hala badagokio, onuradunei ordaintzeko, ezinbestekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere Erakunde Autonomiadunek emandako antzeko diru-laguntzaren bat dela-eta, oraindik itzulketa edo zigor prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura horri amaiera ematea.

*4. artikulua.–* Diru-laguntzen zenbatekoa eta mugak.

1.– Diru-laguntzek, onuradunak aurkeztutako egitarau bakoitzari dagokionez, onartutako exekuzio-aurrekontuaren %70 hartuko dute gehienez ere (zergak kenduta). Egitarau bakoitzean diru-atal jakinetara zuzen daiteke diru-laguntza.

2.– Egitarau bakoitzari gehien jota eman dakiokeen diru-kopurua ez da inola ere 20.000 eurokoa baino handiagoa izango.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– La presente Orden tiene por objeto establecer el régimen de concesión de subvenciones para el desarrollo de aquellos programas, en documentos de archivo, fondos de archivo y colecciones de documentos, de carácter no público, integrantes del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, que tengan por objeto:

a) La mejora en la conservación de la documentación.

b) La organización de los fondos de archivo y la mejora de su tratamiento archivístico.

c) La difusión de la información y su integración en el sistema de información Badator.

2.– A los efectos de lo dispuesto en el número anterior, se entienden por documentos de archivo, fondos de archivo y colecciones de documentos, las definiciones contenidas, respectivamente, en los artículos 56, 57 y 58 de la Ley 7/1990, de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco.

*Artículo 2.–* Recursos Económicos.

Los recursos económicos destinados a la finalidad establecida por la presente Orden son ciento veintiún mil (121.000) euros, según los créditos presupuestarios establecidos al efecto, y tendrán como límite la disposición económica de esta cantidad.

*Artículo 3.–* Beneficiarios.

Serán susceptibles de ser beneficiarios de las subvenciones establecidas en la presente Orden las personas físicas y jurídicas no públicas titulares de documentos de archivo, fondos de archivo y colecciones de documentos integrantes del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, de conformidad a lo establecido en el artículo 55 de la Ley 7/1990, de 3 de julio.

La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de estas, quedarán condicionadas a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 4.–* Cuantía y límite de las subvenciones.

1.– Las subvenciones cubrirán como máximo el 70% del importe (impuestos excluidos) de los gastos de ejecución del presupuesto aprobado de cada programa presentado a efectos de subvención, pudiéndose imputar la misma a partidas concretas de cada programa.

2.– En ningún caso, la subvención por programa podrá superar la cantidad de 20.000 euros.

5. *artikulua*.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak erakunde publiko zein pribatuek helburu berberaz emandako beste laguntza batzuekin bateragarriak izango dira, beti ere guztira jasotako diru-kopuruak aurrekontu osoa gainditzen ez badu. Horrela gertatuz gero, eman beharreko diru-laguntzatik kendu egingo da dagokion kopurua, lagundutako egitarauaren kostu osoari dagokion gehienezko kopurura egokitu arte.

6. *artikulua*.– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetako laguntzak.

7. *artikulua*.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

2.– Diru-laguntzak jasotzeko egin beharreko eskabideak Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta Kultura Sailean aurkeztuko dira behar bezala osaturik, bai zuzenean bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako bideetako edozein erabiliz. Horrekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1.– Eskatzailea pertsona fisikoa izanez gero:

a) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Burutzekoa den egitarau bakoitza azaltzeko txostena.

c) Diruz lagunduko den egitarau bakoitzaren aurrekontua.

d) Zerga kontuak eguneratuak dituela erakusteko egiaztagiria.

e) Ordainketa burutu ahal izateko dokumentazioa edo «Datuen Alta/ Hirugarren interesatua» inoiz egin ez dutenek aurkeztu beharreko dokumentazioa: «Datuen Alta/ Hirugarren Interesatua» fitxa, agindu honen I. eranskineko ereduari jarraituz.

2.– Eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero, artikulu honen 1. zenbakiko b), c), d) eta e) puntuetan eskatutakoaz gainera, honako dokumentazio hau ere bai:

a) Eskatzailearen nortasunari buruzko argibideak erakusten dituen dokumentazioa. Horretarako, eraketa-eskrituraren kopia edo, hala badagokio, estatutu arautzaileena eta, hala badagokio, dagozkion erroldetan izena emanda duela erakusten duen egiaztagiria.

b) Pertsona juridikoaren legezko ordezkaritza duen eta eskabidea sinatu duen pertsona fisikoaren NANren

*Artículo 5*.– Compatibilidad de las subvenciones.

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra entidad pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención concedida hasta el límite máximo que corresponda.

*Artículo 6*.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Patrimonio Cultural la realización de las tareas de gestión de las subvenciones previstas en la presente convocatoria.

*Artículo 7*.– Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes al amparo de la presente convocatoria será de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

2.– Dichas solicitudes habrán de dirigirse al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, y se presentarán en el Departamento de Cultura, bien directamente, bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, acompañadas de la documentación siguiente:

1.– En el supuesto que el solicitante fuera persona física:

a) Fotocopia del DNI del solicitante.

b) Memoria descriptiva de cada programa a ejecutar.

c) Presupuesto de cada programa presentado a subvención.

d) Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias.

e) Documentación para el libramiento de pagos o documentación a aportar por aquellos que no estén dados de «Alta de datos/tercero Interesado»: ficha de «Alta de datos/tercero interesado», según el modelo del anexo I de la presente Orden.

2.– En el supuesto que el solicitante sea persona jurídica, además de la documentación señalada en los apartados: b), c), d), y e) del número 1 del presente artículo, la siguiente:

a) Documentación acreditativa de la personalidad del solicitante, aportando, a tal efecto, copia de la escritura de constitución o, en su caso, de los Estatutos reguladores, así como, en su caso, acreditación de su inscripción en los Registros correspondientes.

b) Fotocopia del DNI de la persona física, firmante de la solicitud, que ejerza la representación legal de la

fotokopia eta haren ordezkari izateko baimena erakusten duen egiaztagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela erakusten duen egiaztagiria.

3.– Aurreko puntuetan adierazitako dokumentazioaz gainera, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako egitarau bakoitzerako eskatutako diru-laguntzen zerrenda ere aurkeztu beharko da, erakunde publiko zein pribatuaren izena eta diru-laguntzen eskabideen egoera aipatuta (ezetsiak, erantzunaren zain, emanak eta diru-kopuruak). Horrelakorik egon ezean, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako egitarauetarako beste inongo laguntzarik eskatu ez dela egiaztatzeko jakinarazpena.

*8. artikulua.–* Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ikusiz gero aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea dela edo akatsak dituela, horren berri emango dio eskabidea egin duenari, eta hamar eguneko epea emango dio, dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko. Halaber. jakinaraziko zaio epe hori bukatuta dokumentazioa era egokian zuzentzen ez bada, ezetsitzat joko dela, aurretik bidezko ebazpena eman eta gero.

*9. artikulua.–* Eskabideak aztertu. Ebazpen-proposamena.

1.– Aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat sortuko da. Hona horren kideak:

a) Kultura Ondarearen zuzendaria, edo berak izendatutako pertsona. Batzordeburu izango da eta boto erabakigarria izango du berdinketa gertatuz gero.

b) Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa-Irargiko bi teknikari, Kultura Ondarearen zuzendariak izendatuak. Horietako bat batzordeko idazkari lanetan arituko da.

2.– Diru-laguntzak nori ebatzi lehiaketa bidez erabakiko da. Horretarako, 10. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lortutako puntuazioari jarraituz ordenatuko dira eskabideak; puntu gehien dituen eskabidetik hasita esleituko dira laguntzak, hurrenez hurren 2. artikuluan adierazitako aurrekontu-kreditua —edo xedapen gehigarriari jarraituz eguneratutako kreditua— agortu arte.

3.– Epaimahaiak, ezarritako balorazio eta aukeraketa irizpideetan oinarrituta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari.

*10. artikulua.–* Balorazio-irizpideak eta eskabideak aukeratzea.

Aurkeztutako egitarauen eskabideak aukeratzerakoan eta beren kopuruak zehazterakoan, ondoko irizpideak erabiliko ditu Epaimahai Kalifikatzaileak:

jurídica, así como, acreditación del poder de representación que ejerza.

c) Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.

3.– Además de la documentación señalada en los números anteriores, los solicitantes deberán aportar la relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas para cada programa presentado a subvención, las Entidades públicas o privadas a que se hayan presentado, así como el estado de las mismas, (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). En el caso contrario, documento declarativo de no haber solicitado ninguna otra ayuda para cada programa presentado a subvención.

*Artículo 8.–* Subsanación de defectos de las solicitudes.

Si la Dirección de Patrimonio Cultural advirtiera en la solicitud presentada y la documentación que la acompaña la existencia de algún defecto u omisión, requerirá al interesado para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución emitida al efecto.

*Artículo 9.–* Análisis de la solicitud y propuesta de resolución.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal Calificador compuesto por los siguientes miembros:

a) La Directora de Patrimonio Cultural, o persona en quien delegue, que ejercerá las funciones de Presidente de la Comisión y dirimirá, con voto de calidad, los empates que pudieran producirse.

b) Dos técnicos de Irargi-Centro de Patrimonio Documental de Euskadi, de la Dirección de Patrimonio Cultural, uno de los cuales actuará como Secretario de la Comisión, y que serán nombrados por la Directora de Patrimonio Cultural.

2.– La concesión de las subvenciones se resolverá por el procedimiento de concurso. A tal efecto, se ordenarán las solicitudes según la puntuación obtenida atendiendo a los criterios fijados en el artículo 10, y se adjudicarán las subvenciones comenzando desde la que haya obtenido la puntuación más alta y sucesivamente hasta el agotamiento del crédito presupuestario previsto en el artículo 2 o el que resulte si se procediera a su actualización según lo previsto en la Disposición Adicional.

3.– El Tribunal, en base a los criterios de valoración y selección establecidos, elevará la oportuna propuesta de resolución al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

*Artículo 10.–* Criterios de valoración y selección de las solicitudes.

Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones y de fijar el importe de las mismas, el Tribunal Calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios:

a) Egitarau bakoitzaren sendotasun zientifikoa (%40).

b) Egitarau bakoitza epe luzerako jarduera baten osagai izatea, bai aurretiaz egindakoari jarraipena emateko, bai egitarau horrekin proiektuari hasiera emateko (%20).

c) Artxiboa osatzen duen material dokumentalaren berri emateko borondatea (%20).

d) Euskarari dagokionez, egitarauaren barruan estandar deskribatzaileak edo interes artxibistikoa izan dezaketen beste osagai batzuk egotea (%15).

e) Egitarau bakoitzaren errentagarritasun zientifikorik hoberena bermatzeko beste edozein osagai (%5).

*11. artikulua.–* Ebazpena.

1.– Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari dagokio diru-laguntzak banatzeko ebazpena ematea, Epaimahai Kalifikatzaileak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren. Ebazpena hilabeteko epean hartuko da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita, eta banan-banan jakinaraziko zaie interesatuei.

2.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Artikulu honetako 1. puntuan adierazitako epea amaitu eta interesatuek jakinarazpenik jasotzen ez badute, eskabideak ezetsi direla ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoaren ondorioetarako.

*12. artikulua.–* Diru-laguntzaren ordainketa.

Ordainketa honela egingo da:

a) Egitarauari emandako diru-laguntzaren %75, 15 a) artikuluan ezarritako onarpen-epearen ondoko hilabetean.

b) Gainerako %25, hurrengo artikuluan ezarritako dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren, bertan erakutsitakoaren arabera.

*13. artikulua.–* Diru-laguntzaren justifikazioa.

Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak jaso dituztenek, diruz lagundutako jarduerak bukatu eta ondorengo bi hilabeteetan, eta beti ere 2006ko otsailaren 1a baino lehenago, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Lagundutako egitarau bakoitzaren helburua betetzeari buruzko txostena.

b) Lagundutako egitarau bakoitzaren gastuei dagozkien egiaztagiriak, jatorrizko fakturak zein beren fotokopia konpultsatuak.

a) La solidez científica de cada programa (40%).

b) La integración de cada programa en una actuación a largo plazo, sea ésta previa a su presentación o se pretenda iniciarla con aquél (20%).

c) La voluntad de difusión de los fondos documentales que integren el archivo (20%).

d) La inclusión dentro del programa de elementos que potencien el desarrollo de standares descriptivos o cualquier otro elemento de interés archivístico en euskera (15%).

e) Cualquier otro elemento que garantice las mejores perspectivas en la rentabilidad científica de cada programa (5%).

*Artículo 11.–* Resolución de las solicitudes.

1.– La resolución del procedimiento de concesión de las subvenciones será adoptada, a la vista de la propuesta elevada por el Tribunal Calificador, por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y notificada individualmente a los interesados, en el plazo de un mes a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

2.– Dicha resolución, a efectos de general conocimiento, será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Transcurrido el plazo indicado en el apartado 1 del presente artículo sin que se hubiera notificado resolución alguna, los interesados podrán entender desestimadas sus solicitudes a los efectos de lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 12.–* Pago de la subvención.

El pago de la subvención se realizará de la forma siguiente:

a) El 75% de la subvención concedida por programa, dentro del mes siguiente al vencimiento del plazo de aceptación establecido en el artículo 15.a.

b) Hasta el 25% restante, previa la recepción y verificación de la documentación establecida en el artículo siguiente y en función de la misma.

*Artículo 13.–* Justificación de la subvención.

Los beneficiarios de las subvenciones establecidas en la presente Orden deberán presentar, dentro de los dos meses siguientes al de finalización de las actividades subvencionadas, y en todo caso, con anterioridad al 1 de febrero del año 2006, la documentación siguiente:

a) Memoria justificativa del cumplimiento del objeto de cada programa subvencionado.

b) Documentación justificativa, originales o fotocopias compulsadas, de los gastos de realización de cada programa subvencionado así como balance de ingresos y gastos.

c) Lagundutako egitaraua edo proiektua burutzerakoan sortutako material zientifikoak (zerrendak, datubaseak, etab.), halakorik baldin badago behintzat.

d) Eskabidea aurkezteko momentuan hartuko zutenik jakin gabe geratu eta ondoren xede berberaz jasotako gainerako laguntza guztien aipamena.

*14. artikulua.–* Diru-laguntza kitatzea.

Diru-laguntza esleitzeko kontuan hartutako baldintzen edozein aldaketak, baldin eta deialdiaren xedea betetakotzat jotzen bada, eta deialdi honetan esleitutako diru-laguntzez gain beste edozein erakunde publiko zein pribatutik diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeak, diru-laguntzak ematen dituen ebazpena aldatzea ekarri ahal izango du.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak, kasu horietan, emandako diru-laguntzen kopuruak doitzeko likidazio-ebazpena emango du.

*15. artikulua.–* Onuradunen betebeharrak.

Agindu honen bidez araututako diru-laguntzak jasotzen dituzten onuradunek honako betebehar hauek dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horrela, dirulaguntza ematen zaiela jakinarazteko gutuna jaso eta hamabost eguneko epean pertsona edo entitate onuradunek ez badiote diru-laguntzari espresuki eta idatziz uko egiten, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza eman zaien helbururako erabiltzea.

c) Diru-laguntzatik eratortzen diren jarduera guztietan Kultura Sailaren babesa agertaraztea.

d) Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzen inguruan eskatutako informazioa ematea.

*16. artikulua.–* Baldintzak ez betetzea.

1.– Ez betetzeak honako hauek izango dira:

a) Jasotako diru-laguntzak, osorik zein zatika, agindu honetan onartutako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak, edo dagokion kasuan diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritakoak, ez betetzea.

c) Diruz lagundutako egitarauan aldaketak egitea, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren aldez aurretiko baimenik gabe.

d) Hala badagokio, diru-laguntzaren kitapen ebazpenean zehaztutako diru-kopurua itzultzeko emandako epe barruan ez itzultzea.

c) En su caso, materiales científicos (inventarios, bases de datos, etc.) producidos en el desarrollo de cada programa o proyecto subvencionado.

d) Relación de cualesquiera otras ayudas con destino al mismo objeto, de cuya efectividad no se tuviese conocimiento en el momento de presentación de la solicitud de la subvención que esta Orden establece.

*Artículo 14.–* Liquidación de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones.

A estos efectos, por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes se dictará la oportuna Resolución de Liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

*Artículo 15.–* Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la notificación de concesión de la subvención los beneficiarios no renuncian expresamente a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Incluir expresa referencia al patrocinio del Departamento de Cultura en las actividades derivadas de la subvención recibida.

d) Facilitar a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración pública y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las subvenciones.

*Artículo 16.–* Incumplimientos.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La aplicación total o parcial de las subvenciones percibidas para actividades distintas de las previstas en la presente Orden.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o, en su caso, de las que se establezcan en el acto de concesión.

c) La modificación del programa subvencionado sin la autorización previa de la Dirección de Patrimonio Cultural.

d) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la Resolución de Liquidación de la subvención, en el plazo para ello establecido.

e) Bestelako xedapenen indarrez guztiek bete beharrekotzat jo daitekeen beste edozein.

2.– Kasu hauetakoren bat gertatzen dela egiaztatuz gero, jasotako diru guztia eta horri dagozkion interes legalak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan adierazitakoa betez eta horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bigarren artikuluan jaso diren zenbatekoak aldatu egin ahal izango dira, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Kultura Sailean laguntzak emateko beste egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratutako diruaren arabera, betiere diru-laguntzak ebatzi baino lehen.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaioke Kultura-sailburuari, hilabeteko epean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

***Bigarrena.***– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

***Hirugarrena.***– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz, Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak fitxategi automatizatu batean sartuko ditu datu pertsonalak.

Fitxategi horretan bildutako datuak ezin izango zaizkie hirugarren batzuei laga; gainera, fitxategiaren erabilera Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatutako laguntzen kudeaketara mugatuta dago.

Nahi izanez gero, Legean aurreikusitako sarbide, zuzenketa, deuseztapen eta aurkakotasun eskubideak erabil ditzakete eskatzaileek; horretarako, idazki bat bidali beharko diote fitxategiaren ardura duen Kultura Ondarearen Zuzendaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 16a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

e) Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

2.– La constatación de la existencia de alguno de estos supuestos determinará, en los términos y previo cumplimiento de lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe global consignado en el artículo 2 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Cultura, y con carácter previo a la resolución de las mismas.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación, o bien, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir, asimismo, del día siguiente al de su publicación.

***Segunda.***– La Presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Tercera.***– La Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura incorporará para su tratamiento los datos personales obtenidos en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.

El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Los solicitantes podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Patrimonio Cultural, responsable de dicho fichero, c/ Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de febrero de 2005.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

# I. ERANSKINA / *ANEXO I*

## HIRUGARRENAREN DATUEN ALTA / *ALTA DE DATOS TERCERO INTERESADO* (*)

HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK / *DATOS IDENTIFICACIÓN DEL TERCERO*

IFZ edo NAN / *NIF o DNI.* (1) ..........................................................
Entitatearen izendapena edo izen-deiturak / *Denominación de la entidad o nombre y apellidos* ..........................................
..........................................................................................

HELBIDERATZE-DATUAK / *DATOS DE DOMICILIACIÓN*

Kalea, Zkia., Solairua
*Calle, N.º Piso* ..........................................................
Herria / *Localidad* ..........................................................
Lurraldea / *Provincia* ..........................................................
Udal Kodea / *Código de Población* ..........................................................
Posta-Kodea / *Código Postal* ..........................................................

BANKETXE EDO AURREZKI ENTITATEAREN DATUAK / *DATOS BANCARIOS O DE LA ENTIDAD DE AHORRO* (3)

| | |
|---|---|
| Banketxea edo Aurrezki Entitatea / *Banco o Entidad Bancaria* | □□□□ |
| Agentzia / *Agencia.* | □□□□ |
| C.D. / *K.D.* | □□ |
| Kontu zkia. / *N.º cuenta* | □□□□□□□□□□ |
| Jabea / *Titular* ..................................................... | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Bankuaren adostasuna<br>*Conforme Banco* | Hirugarrenaren adostasuna<br>*Conforme Tercero* | Sailaren onespena<br>*V.º B.º Departamento* | Kontabilitatearen onespena<br>*V.º B.º Contabilidad* |
| Sinadura eta zigilua<br>*Sello y Firma* | Sinadura eta zigilua<br>*Sello y firma* | Baimendutako sinadura<br>*Firma autorizada* | Baimendutako sinadura<br>*Firma autorizada* |

(*) Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzarik inoiz jaso ez dutenek bete beharreko inprimakia / *Impreso a rellenar por aquellos peticionarios que no hayan recibido nunca subvención alguna del Gobierno Vasco*

Argibideak / *Observaciones:*

(1) Erantsi fitxa honi Identifikazio Fiskalerako Txartelaren fotokopia edo Nortasun Agiri Nazionalarena / *Debe adjuntarse fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal o, en su caso, del Documento Nacional de Identidad.*
(2) Administrazioak bete beharrekoa / *A rellenar por la Administración.*
(3) Bankuak edo Aurrezki Entitateak bete beharrekoa / *A cumplimentar por el Banco o Entidad de Ahorro.*

OHARRA:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ondokoa adierazi nahi dizu: eranskin honetan jarri dituzun datu pertsonalak, Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikopean dagoen fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.

Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako. Fitxategia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak erabiliko du, bakarrik, berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

*NOTA:*

*La Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este anexo van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.*

*El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.*

*Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Patrimonio Cultural responsable de dicho fichero, C/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

## 1106

AGINDUA, 2005eko otsailaren 16koa, Kultura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren artxibo sistema jarri edota sendotu ahal izan dezaten diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen bidez Euskadiko Artxibo Sistema Nazionala sortu zen, eta erregistro horri dagokio bere barruan dauden artxibo zerbitzuen planak bateratu eta koordinatzea. Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen du Euskal Herritarren Dokumentu Ondarearen eremua, dokumentuok diren garaikoak direla. Horretan sartzen dira toki-erakundeek beren funtzio edo zereginetan dihardutela sortu, bildu edo kontserbatutako dokumentuak: udalak; udalek baino lurralde txikiagoa hartzen duten entitateak; toki-izaera duten udalaz gaindiko entitateak (Arabako koadrilak barne) eta, sortzen diren bestelako administrazio-entitateak. Dekretu horrek berak, halaber, Euskadiko Artxibo Sistema Nazionalaren (EASN) egitura, onurak, atxikipenak eta funtzioak ezartzen ditu. 23. artikuluan Euskadiko udal- eta toki-administrazioko artxibo-zerbitzuak Euskadiko Artxibo Sistema Nazionalean nola sar daitezkeen xedatzen da.

## 1106

ORDEN de 16 de febrero de 2005, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen subvenciones a Entidades Locales y Supramunicipales de carácter local de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el objeto de poner en funcionamiento y/o consolidar un Sistema de Archivo Propio.

Por Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, se crea el Sistema Nacional de Archivos de Euskadi, al que corresponden la homologación y coordinación de los planes de los Servicios de Archivo que lo integran. El Decreto 232/2000, de 21 de noviembre, por el que se aprueban el Reglamento de los Servicios de Archivo y las normas reguladoras del Patrimonio Documental del País Vasco, establece en su artículo 3 el ámbito del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, en el que se incluyen los documentos de cualquier época producidos, reunidos, y conservados por las entidades locales en el ejercicio de sus funciones o actividades, comprendiendo tanto a los municipios como a las entidades de ámbito territorial inferior al municipal, y las entidades supramunicipales de carácter local (entre las que se incluyen las Cuadrillas de Álava) y cualquier otra entidad administrativa que pueda crearse. Este mismo decreto establece, asimismo, la estructura, beneficios, adscripción y funciones del Sistema Nacional de Archivos de Euskadi (SNAE). En el artículo 23 se dispone la integración de los servicios de archivo de la Administración Municipal y Local de Euskadi en el Sistema Nacional de Archivos de Euskadi.